

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onespena ematea Araiako UE-19 egikaritze unitatearen hirigintzako jarduketa programari

Tokiko Gobernu Batzordearen 2022ko abuztuaren 2ko Erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Asparreneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko (HAPO) UE-19 Intuxi-Camino egikaritze unitatearen hirigintzako jarduketa programari, baldintza hauekin: aurkeztutako dokumentazio teknikoa osatu behar da lurzatiaren plano batekin, jarduketaren xede diren ondasun eta eskubideen titularren zerrenda jasoko duena, eta 316,29 euroko fidantza bat jarri behar da, eremua urbanizatzeko kalkulaturako kostuaren ehuneko 1ekoa.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeiei egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edonork aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko, bat etorritik ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 156. artikuluan xedatutakoarekin, programa horretan jasotako funtsezko elementu hauekin:

– Ekimena eta sustatzaileak: José Antonio Mendía Álvarez de Arcaya eta Sonia Mendía Sáez de Arregui, hirigintzako jarduketa programa (HJP) idatzi duen arkitekto Raquel Ochoa Ruiz andreari izapideak egiteko baimena ematen diotenak.

– Xedea eta eremua: hiri lurzoru finkatugabea, bizitegi erabilera.

– Xedea: unitatearen garapena, familia bakarreko bi etxebizitza egiteko.

– Eremua: Asparrenako HAPOko UE-19 Intuxi-Camino egikaritze unitatea, Araiako 2 poligonoko 249-D, 1606 eta 1269-A lurzatiak hartzen dituena.

– UE-19ren azalera, guztira: 1.639,00 m².

– Aurkeztutako agiriak:

A agiria. Sarrera.

B agiria. Eduki juridiko-urbanistikoa.

C agiria. Eduki tekniko-urbanistikoa.

D agiria. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlana.

1. eranskina. HJPren agiri grafikoak.

2. eranskina. Urbanizazioaren aurreproiektuaren agiri grafikoak.

3. eranskina. URAREN eta Iberdrolaren txostenak.

– Aurreikusitako jarduketa mota: pribatua.

– Jarduketa sistema: ituntze sistema.

– Udalari aprobetxamenduak lagatzea: eraikigarritasun haztatuaren ehuneko 15ari dagoen hirigintza aprobetxamenduaren kuantifikazioa, urbanizazio kargarik gabe eta zuzkidura lurzoruaren lagapena baliozkotuko da birpartzelazio proiektua izapidetzen den bitartean.

– Berdinbanaketa proposamena aurkezteko epeak:

– HJP behin betiko onesten denetik, gehienez, 2 hilabeteko epea ituntze hitzarmena aurkezteko.

- Gehienez ere 2 hilabeteko epea, Ituntze hitzarmenaren behin betiko onespena jakinarazten denetik, Ituntze Batzarra eratzeko.
- Ituntze Batzarra eratzen denetik gehienez 4 hilabeteko epea, birpartzelazio proiektua aurkezteko.
- 6 hilabeteko epea, Hirigintzako Jarduketa Programaren behin betiko onespena argitaratzen denetik zenbatzen hasita, urbanizazio proiektua aurkezteko.
- Gehienez ere urtebeteko epea, Ituntze Batzarra eratzen denetik, urbanizazio obrak esleitzeko. Obra horiek fase bakarrean egingo dira, zortzi asteren buruan.
- Urbanizazio lanak kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua: 31.628,84 gehi BEZa.

Araia, 2022ko abuztuaren 3a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ